



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

2017/03/06

Harrerea Bidaideak BSR taldeari Batzarretxean

Bizkaiko Batzar Nagusiek omenaldi xumea egin deusie gaur gurpildun aulkietan jokutzen dauen Bidaideak Bilbao BSR saskibaloiz taldeari, bere 25 urteak dirala eta. Ana Otadui Bizkaiko Batzarretako presidenteak harrerea egin deusie Gernikan taldeko jokalariei, "staff teknikoari eta zuzendaritza taldeko kideei, eta keinu horregaz, "taldeak egindako esfortzua eta kirolaren arloan oztopoak gainditzeko eta aurrera egiteko erakutsi dauen gaitasuna" balorau ditu. "Gure lurraldeko neska mutil askok euren oztopoak gainditzeko orduan aurrean euki daikien ispilua" dira.

Bilboko Txurdinagako kiroldegia Europako BSRaren erdiguneetako bat izango da barikuan eta zapatuan, martiaren 10ean eta 11n. Bertan, Bidaideak Bilbao BSR taldea, beste lau taldegaz batera, apirilean jokatu dan gurpildun aulkiko Gizonezkoen eta Emakumezkoen Euroleaguearen azken fasera heltzeko lehiatu da. Saskibaloiz betetako egun bi izango dira, eta goi mailako hamar partidu gozau ahal izango dira Bizkaiko kantxa horretan. Batzar Nagusietatik animo eta zorte guztia opatu jake European egin behar daben ibilpide horretarako.

Batzarretxeko Ohorezko Liburuan sinatu dauen Txema Alonso Bidaideak taldeko gerenteak beren beregi eskertu gura izan dau Bilboko taldeak Bizkaialde Fundaziotik eta, ondorioz Bizkaiko gizarte osotik, jasoten dauen laguntzinoa.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

06/03/2017

Gernika

Recibimiento al Bidaideak Bilbao BSR en la Casa de Juntas de Gernika

Las Juntas Generales de Bizkaia han realizado hoy un pequeño acto de homenaje al equipo de baloncesto en silla de ruedas Bidaideak Bilbao BSR con motivo de la celebración de sus 25 años de historia. Jugadoras y jugadores, “staff” técnico y directivos del equipo bilbaíno han sido recibidos en Gernika por la presidenta del parlamento vizcaíno, Ana Otadui, quien ha valorado con este gesto el “esfuerzo del club y su capacidad de superación deportiva”. Son el “espejo donde pueden mirarse muchos chicos y chicas del territorio para salvar sus obstáculos” ha dicho.

El encuentro se produce unos días antes de la celebración en Bilbao de una fase previa del campeonato de Europa de basket adaptado. El polideportivo bilbaíno de Txurdinaga acogerá este próximo viernes y sábado, 10 y 11 de marzo, uno de los centros del BSR europeo, donde Bidaideak junto a cuatro conjuntos más, luchará por alcanzar la fase final de la Euroleague de Baloncesto Masculino y Femenino en silla de ruedas que se disputará el próximo mes de abril. Serán dos días intensos de baloncesto, en el que diez partidos del máximo nivel se podrán disfrutar en la cancha vizcaína. Desde las Juntas Generales se ha deseado al Bidaideak “ánimo y mucha suerte” en este periplo europeo.

El gerente de Bidaideak, Txema Alonso, quien ha firmado en el Libro de Honor de la Casa de Juntas, ha querido agradecer "expresamente" el apoyo que el equipo bilbaíno recibe de la Fundación Bizkaialde y, en extensión, de toda la sociedad vizcaína.